

“Badira sekretuak diren patuak; nik neurearen giltza daukat, eta nire enigma zabaltzen dut. Ni predestinatua naiz! Betebehar bat daukat. Txiroen lord jauna izanen naiz. Etsia hartutako isildu guztien ordeztu hitz eginen. Toteltasunak itzuliko ditut. Karraskak, garrasiak, marmarrak, samalden zurrumurrua, gaizki esandako kexuak, ulertu ezinezko ahotsak, eta ezjakintasunak eta sufrikarioak gizakiei eginarazi dizkieten abere-orro horiek guztiak. Gizakien hotsa haizearen hotsa bezain desartikulatua da; oihiu egiten dute; baina ez zaie ulertzen; horrela oihiu egitea isiltzearen pareko da, eta isiltzeak ahalik gabe dituzten. Laguntza eskatzen duen behartutako ahalik eza. Ni izanen naiz haien laguntza. Ni izanen naiz salaketa. Herriaren Ahotsa izanen naiz. Niri esker, ulertu eginen da. Mozorroa kendu zaion aho odoltsua izanen naiz. Dena esanen dut. Handia izanen da.

Lord Fermain Clancharlie, erbestean hildako Ingalaterrako Pare baten oinordeko legitimoa, bere haurtzaroan bahitua izan zen erregearen aginduz. Bere aurpegia itxuragabetua izan zen eta, Gwynplane izenarekin, itzulipurdikari bat izatera pasa zen. Bera da Irri egiten duen gizona. Bere benetazko nortasuna ezaguna egin zenean, bere lehen hitzaldia eman zuen Loren Kameran, irri eta irainen artean.

Bai, mutuen ordeztu hitz egitea, ederra da; baina gorrei hitz egitea, triste da. Bere abenturaren bigarren zatia zen. Ondikotz! Porrot egin zuen. Ezinbestean porrot. Sinetsi izan zuen goratze hau, fortuna jaso hau, itxura hau, lur joa zen bere azpian. Nolako erorikoa! Irriaren aparrean erortzea! Hainbeste urtez, espiritu ernea, sufrimenduak zabal jakinaraztean ibili izan zen honek, ilunpetik heiagora lazarri bat jaso zuen honek, indartsua zela uste zuen. Traba gogor horretan, zoriotsuen fribolitatean porrot egitera etorria zen. Mendekatzaila zela uste zuen, klown bat zen. Tximistaz jotzen zuela uste zuen, kilikatu egin zuen. Hunkiduraren ordeztu, trufa jaso zuen. Negar egin zuen, bozkariotan jarriak zituen. Bozkario honen azpian, hondoa jota zegoen. Heriotzak irentsia.”

Irri egiten duen gizona, bigarren zatia, 9. liburukia ("lur jota"), 2. atala.

1861



Victor Hugo Bruxellesen, Bertall. MVH © PMVP.

BARRE EGITEN DUEN GIZONA

07

Eddystoneko Itsasargia “Irri egiten duen gizona”ren lehenengo atalean aipatzen da. 1866ko apirila- maiatzean hasi zen bere eleberrirako oharak hartzen, eta urte bereko uztailean hasi zen idazten.



Victor Hugo. Eddystoneko itsasargia. 1866 MVH © Coll. Violet